

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 810/2014 Foru Agindua, abenduaren 15koa, zenbait loteria eta apustu sariren gaineko karga berezia onartzen duena. Atxikipenen eta konturako diru sarreraren urteko laburpena

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak, 2014ko urtarrilaren 16ko bilkuran, ekonomia ituna aldatzea erabaki zuen, besteak beste, zenbait loteria eta apustu sariren gaineko karga bereziari dagozkion atxikipenak eta konturako diru sarrerak adosteko.

Aurrekoarekin bat etorrita, apirilaren 22ko 7/2014 Legearen bidez, aldatu egin da Euskal Autonomia Erkidegoarekiko ekonomia ituna, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartua; eta itun hori Arabako Biltzar Nagusiek berretsi dute, otsailaren 26ko 4/2014 Foru Araua, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren lehenengo erabakia berrestekoa, dela medio.

Zenbait loteria eta apustu sariren gaineko karga bereziari dagozkion atxikipenei gagozkiela, aldatu egin da Ekonomia Itunaren 10. artikulua. Artikulu horrek aurrerantzean xedatzen du zenbait loteria eta apustu sariren gaineko karga bereziari dagozkion atxikipenak Arabako Foru Aldundiak eskatuko dituela, bere araudiaren arabera, baldin eta sarituak ohiko etxebizitza edo zerga egoitza Arabako lurralde historikoan badu.

Indarrean dagoen tasa aplikagarriko atxikipenak edo konturako diru sarrerak, lurralde erki-dearen bera izan behar duenak, salbuesten du loteria eta apustu jakin batzuen gaineko karga bereziaren autolikidazioa aurkeztu beharretik.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 517/2014 Foru Aginduak, uztailaren 24koak, 230 erdua onartu zuen, hots, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga: loteria eta apustu jakin batzuen gaineko karga bereziaren atxikipenak eta konturako diru sarrerak; sozietateen gaineko zerga: loteria eta apustu jakin batzuen sariren atxikipenak eta konturako diru sarrerak. Autolikidazioa.

Foru agindu honen bidez, atxikipenen eta konturako diru sarreraren urteko laburpena, 270 erdua, onartzen da, hauekin bat etorritik: azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, 115. artikulua; abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren, sozietateen gaineko zergaren, 130.2 artikulua; eta ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren, 31.5 artikulua.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. 270 erdua onartzea

270 erdua onartzen da: "atxikipenak eta konturako diru sarrerak. Zenbait loteria eta apustu sariren gaineko karga berezia" Foru agindu honen I. eranskinean jasotzen da.

2. artikulua. Onartzea 270 erdua baliabide telematikoen bitartez aurkezteko sortzen diren fitxategiek eduki beharreko diseinu logiko eta fisikoak

Zuzenean ordenagailuz irakur daitekeen euskarrian aurkeztuko dira nahitaez. Euskarri hori foru agindu honen II. eranskinean ageri diren diseinu fisiko eta logikoei egokituko zaie.

3. artikulua. 270 eredia aurkeztera behartuak

270 eredia aurkeztu beharra izango dute, atxiki edo kontuan sartu beharra izanik, hauen arabera artikulua honen 2. paragrafoak aipatzen dituen sarrietako bat ordaintzen duten zergapekoek: azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenaren, hemezortzigarren xedapen gehigarriaren 6. paragrafoa; ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenaren, zazpigarren xedapen gehigarria; edo abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren, sozietateen gaineko zergarenaren, 130. artikulua.

4. artikulua. 270 eredia aurkezteko modua

270 ereduaren aurkezpena hurrengo artikuluan xedatutako baldintza eta prozedurekin bat etorritik egingo da.

5. artikulua. 270 eredia ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian aurkezteko prozedura

Aitortzaileak agiri hauek aurkeztuko ditu:

1) 270 ereduaren administrazioarentzako eta interesdunarentzako laburpen orrietan, ale bana, eskatutako identifikazio datu guztiak beteko dira, eta horiekin batera identifikazio fiskalaren zenbakiaren fotokopia aurkeztuko da.

Gainera, bi aleek behar bezala sinatuta egon beharko dute, eta behar diren lekuetan adierazita sinatzailea nor den eta laburpen orrian eskatzen diren gainerako datuak.

Jaso duen bulegoak zigilua ipini ondoren, aitortzaileak 270 ereduaren laburpen orriaren interesdunarentzako alea hartuko du beretzat, aurkeztu izanaren frogagisa.

2) Ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriari etiketa itsatsi behar zaio kanpoaldean eta bertan datu hauek idatziko dira, hurrenkera honetan:

- a) Arabako Foru Ogasuna.
- b) Ekitaldia.
- c) 270 aurkezpen eredia.
- d) Identifikazio fiskalaren zenbakia.
- e) Aitortzailearen izen-abizenak edo sozietatearen izena.
- f) Aitortzailearen helbidea, udalerrria eta posta kodea.
- g) Harremanetarako pertsonaren izen-abizenak.
- h) Pertsona horren telefono eta luzapen zenbakia.
- i) Erregistroen kopurua.
- j) Euskarriaren dentsitatea: gehienez, 4,7 GB, DVD-R edo DVD+Retan eta, 700MB, CD-Rn.

Datuok adierazteko, nahiko izango da bakoitza idaztea goiko zerrendan dagokion letra aurretik ipinita.

Fitxategia ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarri batean baino gehiagotan aurkezten bada, euskarri bakoitzak bere etiketa izan behar du, segidan zenbakituta: 1/n, 2/n etab., "n" izanik euskarrien guztirako kopurua. Bigarren eta hurrengo aleen etiketan, goiko a), b), c), d) eta e) letretako datuak baino ez dira jarri beharko.

6. artikulua. 270 eredia aurkezteko epea

270 eredia urte bakoitzeko urtarrilean egingo da, aurreko urteko sariei dagokienez.


AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta, lehenengo aldiz, 2014ko aitorten aurkezpenei aplikatuko zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 15a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Diputatua
AITOR URIBESALGO LORENZO

Ogasun Zuzendaria
JUAN IGNACIO MARTINEZ ALONSO

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.alava.net</p>	<p>Lotería eta apustu jakin batzuen sarien gaineko karga berezia Urteko atxikipenen eta konturako sarrerren laburpena</p> <p>Gravamen especial sobre los premios de determinadas loterías y apuestas Resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta</p>	270
--	---	-----

Ogasun, Finantza
eta Aurrekontu SailaDepartamento de Hacienda,
Finanzas y Presupuestos

1 IDENTIFIKAZIOA IDENTIFICACIÓN	<p>Identifikazio txartela jartzeko lekua Espacio reservado para la etiqueta identificativa</p>	2 SORTZAPENA DEVENGO
		<p>Ekitaldia ■ Ejercicio <input type="text"/></p> <p>Aitorpenaren identifikazio zenbakia Número identificativo de la declaración <input type="text" value="270"/></p>

3	HARREMANETARAKO PERTSONA ■ PERSONA DE CONTACTO
Deiturak eta izena ■ Apellidos y nombre	Telefona ■ Teléfono

4	AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA ■ DECLARACIÓN COMPLEMENTARIA O SUSTITUTIVA
<p>Aitorpen honen xedea lehenago aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean agertu behar izan arren zehaztu gabe geratu ziren hartukizunak sartzea bada, markatu "C" batez "Aitorpen osagarria" laukia.</p> <p>Aitorpen honen xedea lehenago aurkeztutako ekitaldi bereko beste bat deuseztea eta erabat ordezteka bada, datuak falta direlako edo datu batzuk oker daudelako, "S" batez markatu behar da "Ordezko aitorpena" laukia.</p> <p>Batera zein bestera, aurreko aitorpenaren identifikazio zenbakia idatzi behar da; aurretik aitorpen batzuk aurkeztu badira, azkenaren identifikazio zenbakia eman behar da.</p> <p>Si la presentación de esta declaración tiene por objeto incluir percepciones que, debiendo haber sido relacionadas en otra declaración del mismo ejercicio presentada anteriormente, hubieran sido completamente omitidas en la misma, se marcará con "C" la casilla "Declaración complementaria". Cuando la presentación de esta declaración tenga por objeto anular y sustituir por completo a otra declaración del mismo ejercicio presentada anteriormente, en la cual se hubieran consignado datos inexactos o erróneos, se indicará su carácter de declaración sustitutiva marcando con "S" la casilla "Declaración sustitutiva".</p> <p>En ambos casos se hará constar el número identificativo de la declaración del mismo ejercicio anteriormente presentada o el de la última de ellas, si se hubieran presentado varias.</p> <p>Aitorpen osagarria ■ Declaración complementaria Aurreko aitorpenaren identifikazio zenbakia Número identificativo de la declaración anterior <input type="text" value="270"/></p> <p>Ordezko aitorpena ■ Declaración sustitutiva</p>	

5	AITORPENEN DATUEN LABURPENA RESUMEN DE LOS DATOS INCLUIDOS EN LA DECLARACIÓN
<p>Hartzaileak, guztira ■ Número total de perceptores <input type="text" value="01"/></p> <p>Aitorpenaren barruko orrietan guztira zenbat idazpen edo erregistro dauka zehaztu behar da ■ Consigne el número total de los apuntes o registros contenidos en las hojas interiores de esta declaración</p> <p>Sari guztien zenbatekoa edo balorazioa ■ Total importe o valoración de los premios <input type="text" value="02"/></p> <p>Hartzailearen erregistroetako "Sariaren zenbatekoa/Gauzak sariaren balioa, guztira" eremuan (136-150 zuriuneak) jarritako kopuru guztien batura igini behar da Consigne la suma total de las cantidades reflejadas en el campo "Importe íntegro del premio/Valor del premio (en especie)" correspondientes a los registros del perceptor</p> <p>Atxikipenen eta konturako sarrerren oinarria, guztira ■ Total importe base de retenciones e ingresos a cuenta <input type="text" value="03"/></p> <p>Hartzailearen erregistroetako "Atxikipenen eta konturako sarrerren oinarria" eremuan jarritako kopuru guztien batura egin behar da Consigne la suma total de las cantidades reflejadas en el campo "Base de retención e ingreso a cuenta" correspondientes a los registros del perceptor</p> <p>Atxikipenen eta konturako sarrerren zenbatekoa, guztira ■ Total importe de las retenciones e ingresos a cuenta <input type="text" value="04"/></p> <p>Hartzailearen erregistroetako "Atxikipenen eta konturako sarrerren zenbatekoa" eremuan jarritako kopuru guztien batura egin behar da Consigne la suma total de las cantidades reflejadas en el campo "Importe de la retención e ingreso a cuenta" correspondientes a los registros del perceptor</p>	

6	ZIGILUA ETA SINADURA SELLO Y FIRMA	7	SARRERA ERREGISTROKO ZIGILUA SELLO REGISTRO ENTRADA

RE 14/2010

270 EREDUA, LOTERIA ETA APUSTU JAKIN BATZUEN SARIEN GAINEKO KARGA BEREZIA DELA ETA URTEAN APLIKATUTAKO ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN LABURPENA, TELEMATIKOKI AURKEZTEKO SORTZEN DIREN FITXATEGIEN DISEINU FISIKOAK ETA LOGIKOAK

A) Euskarri magnetikoen ezaugarriak

Loteria eta apustu jakin batzuen sarieneko karga berezia dela eta urtean aplikatutako atxikipenen eta konturako sarrereneko laburpena (270 eredu) ordenagailuaz zuzenean irakur daitekeen euskarrian aurkeztu ahal izateko, euskarriak ondoko ezaugarri hauek eduki behar ditu:

- Mota: DVD-R edo DVD+R
- Edukiera: 4,7 GB gehienez
- UDF fitxategi sistema
- Aurpegi bat, geruza soila

Fitxategi partzialeko erregistro osoak eduki behar dituzte, hau da, fitxategia inolaz ere ezin da zatikatu fitxategi partzialetan erregistro batzuk osatu gabe utzita.

B) Diseinu logikoak. Erregistroen deskripzioa

Bi erregistro mota ezberdin sartu behar dira (lehenengo zuriuneagatik bereizten dira) ondoko irizpide hauei jarraituz:

1 mota: Aitortzailearen erregistroa: identifikazio datuak eta aitortzailearen laburpena. Atal hauetan behegera eta foru agindu honen eranskinean jasotako erregistro motetatik lehenengoaren diseinua.

2 mota: Hartzailearen erregistroa. Atal hauetan behegera eta foru agindu honen eranskinean jasotako erregistro motetatik bigarrenaren diseinua.

Aurkezpen hurrenkera erregistro motaren arabera izango da; 1 motako erregistro bat bakarrik egongo da eta 2 motako erregistro bat aitortzaile bakoitzeko.

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerrean lerrotatu behar dira eta eskuinean zuriuneak hutsik utzi; letra larriz idatzi behar da eta ezin da erabili karaktere berezirik ez bokal azentudunik.

Hizkuntzaren karaktere berezietarako ISO-8859-1 kodifikazioa erabiliko da. Honela, "Ñ" letra ASCII 209 da (Hex. D1) eta "Ç" (ze hautsi larria) letra ASCII 199 (Hex. C7).

Eremu numeriko guztiak eskuinean lerrotaturik eta ezkerrean zeroz beteta aurkeztu behar dira, zeinurik gabe eta paketatuta gabe.

Eremu guztiak bete behar dira, eremuaren deskripzioan besterik adierazi ezean. Edukirik ez badute, eremu numerikoetan zeroak jarri behar dira eta alfabetikoak eta alfanumerikoak hutsik utzi behar dira.

270 EREDUA**A.- 1 MOTAKO ERREGISTROA: AITORTZAILEAREN ERREGISTROA.**

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPIZIOA
1	Numerikoa	ERREGISTRO MOTA Finkoa: '1'
2-4	Numerikoa	AITORPEN EREDUA Finkoa: '270'
5-8	Numerikoa	EKITALDIA Aitorpenaren zerga ekitaldiaren lau zifrak.
9-17	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN IFZ Aitortzailearen IFZ adierazi behar da uztailearen 8ko 71/2008 Foru Dekretuak, IFZren inguruko betebeharrak arautzen dituenak, ezarritako arauekin bat etorritik (ALHAO, 88. zk., 2008ko abuztuaren 4koa). Eremu hau eskuinean lerrokatu behar da. Azken zuriunean kontrol karakterea jarri behar da eta ezkerrekoak zeroz bete.
18-57	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN IZENA Aitortzailearen izena edo sozietate izena idatzi behar da, osorik eta anagramarik gabe. Eremu honetan ezin da idatzi merkataritzako izenik.
58	Alfabetikoa	EUSKARRI MOTA Gako hauetako bat jarri behar da: «C»: informazioa DVD-R edo DVD+R euskarrian aurkezten da. «T»: eredia telematikoki aurkezten da.
59-107	Alfanumerikoa	HARREMANETARAKO PERTSONA Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu honetan atal bi daude: 59-67 TELEFONOA: 9 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa. 68-107 ABIZENAK ETA IZENA: lehen abizena, zuriune hutsa, bigarren abizena, beste zuriune bat hutsik, eta azkenik izen osoa, hurrenkera honexetan nahitaez.
108-120	Numerikoa	AITORPENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA Aitorpenaren identifikazio zenbakia idatzi behar da. 13 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa. Zenbaki sekuentziala izan behar da; lehenengo hiru digituak 270 izan behar dira (ereduaren kodea).

121- 122	Alfabetikoa	<p>AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKO AITORPENA</p> <p>Aparteko kasuetan, bigarren aitorpena edo ondoko besteren bat aurkeztuz gero, eremu hauetako bat bete behar da nahitaez:</p> <p>121 AITORPEN OSAGARRIA: aitorpen berriaren xedea lehenago aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean agertu behar izan arren bertan oso-osorik jarri gabe geratu ziren aitortu batzuen erregistroak eranstea bada, "C" idatzi behar da.</p> <p>122 ORDEZKO AITORPENA: aitorpenaren xedea ekitaldi bereko aurreko beste aitorpen bat osorik deuseztatzea eta ordeztea bada, "S" idatzi behar da. Ordezko aitorpen batek aurreko aitorpen bakar bat baino ezin du baliogabetu.</p>
123- 135	Numerikoa	<p>AURREKO AITORPENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA</p> <p>"AITORPEN OSAGARRIA" eremuan "C" jarri bada edo "S" "ORDEZKO AITORPENA" eremuan, ordeztutako edo osatutako aitorpenaren identifikazio zenbakia idatziko da.</p> <p>13 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa.</p> <p>Gainerako kasuetan ZEROAK idatzi behar dira.</p>
136-144	Numerikoa	<p>AITORTUEN ERREGISTROAK, GUZTIRA</p> <p>Erakunde aitortzaileak 2 motako xehetasun erregistroetan ezarritako hartzaileen guztirako kopurua adierazi behar da. Hartzaile bat hainbat erregistrotan agertzen bada, agertzen den beste aldiz konputatu behar da (2 motako erregistroen kopurua).</p>
145-161	Numerikoa	<p>SARI GUZTIEN ZENBATEKOA EDO BALORAZIOA</p> <p>17 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa.</p> <p>Hartzailearen erregistroetako "SARIAREN ZENBATEKOA / GAUZAZKO SARIAREN BALIOA, GUZTIRA" eremuan (136-150 zuriuneak) jarritako kopuru guztien batura ipini behar da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe.</p> <p>Zenbatekoak euroetan eman behar dira.</p> <p>Eremu honetan atal bi daude:</p> <p>145-159 Sarien zenbatekoen edo balorazioen guztirako kopuruaren zati osoa.</p> <p>160-161 Sarien zenbatekoen edo balorazioen guztirako kopuruaren zati hamartarra. Ez badago, zeroak jarri.</p>
162-178	Numerikoa	<p>ATXIKIPENEN EDO KONTURAKO SARREREN OINARRIA, GUZTIRA</p> <p>17 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa.</p> <p>Hartzailearen erregistroetako "ATXIKIPENEN EDO KONTURAKO SARREREN OINARRIA" eremuan (151-165) ezarritako kopuruaren batura jarri behar da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe.</p> <p>Zenbatekoak euroetan eman behar dira.</p>

			Ereму honetan atal bi daude:
			162-176 Atxikipenen eta konturako sarreraren oinarriaren guztirako zenbatekoaren zati osoa.
			177-178 Atxikipenen eta konturako sarreraren oinarriaren guztirako zenbatekoaren zati hamartarra. Ez badago, zeroak jarri.
179-195	Numerikoa	ATXIKIPENEN EDO KONTURAKO SARREREN ZENBATEKOA, GUZTIRA	
			17 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa.
			Hartzailearen erregistroetako “ATXIKIPENAREN EDO KONTURAKO SARRERAREN ZENBATEKOA” eremuan (166-180) ezarritako kopuruen batura jarri behar da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe.
			Zenbatekoak euroetan eman behar dira.
			Ereму honetan atal bi daude:
			179-193 Atxikipenen eta konturako sarreraren guztirako zenbatekoaren zati osoa.
			194-195 Atxikipenen eta konturako sarreraren guztirako zenbatekoaren zati hamartarra.
			Ez badago, zeroak jarri.
196-487	—	HUTSIK	
488-500	Alfanumerikoa	ZIGILU ELEKTRONIKOA	
			Ereму hau taldeko aitortpeni zigilu elektronikoa jartzeko da. Horretarako AFaren programa ofizialak erabili behar dira. Bestela, hutsik utzi behar da.
			— Zenbateko guztiak positiboak izan behar dira.
			— Edukirik gabeko eremu numerikoak zeroz bete behar dira.
			— Edukirik gabeko eremu alfanumerikoak eta alfabetikoak hutsik utzi behar dira.
			— Ereму numerikoak eskuinean lerrotatu behar dira eta ezkerrean zeroz bete behar dira.
			— Ereму alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerrean lerrotatu behar dira eta eskuinaldean hutsik utzi, eta letra larriz idatzi behar da, karaktere berezirik gabe eta azentudun bokalik gabe, eremuaren deskripzioan kontrakorik azaldu ezean.

270 EREDUA**B.- 2 MOTAKO ERREGISTROA: HARTZAILEAREN ERREGISTROA.**

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
1	Numerikoa	ERREGISTRO MOTA Finkoa: '2'
2-4	Numerikoa	AITORPEN EREDUA Finkoa: '270'
5-8	Numerikoa	EKITALDIA Aitorpenaren zerga ekitaldiaren lau zifrak.
9-17	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN IFZ 1 motako erregistroko zuriune hauetan dagoena idatzi behar da.
18-26	Alfanumerikoa	HARTZAILEAREN IFZ Oro har, eremu honetan hartzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia adierazi behar da uztailearen 8ko 71/2008 Foru Dekretuak, IFZren inguruko betebeharrak arautzen dituenak, ezartzen dituen arauekin bat etorritik (ALHAO, 88. zk., 2008ko abuztuaren 4koa). Eremu hau eskuinean lerrotatu behar da, azken zuriunean kontrol karakterea jarri behar da eta ezkerreko zuriuneak zeroz bete behar dira. Salbuespena: HARTZAILE MOTA eremuan (2 motako erregistroa, 116. zuriunea) 5 gako ipini bada (egoitza Espainiako lurraldean ez daukan pertsona edo erakundea, bertan establezimendu iraunkorrik gabe ari dena) eta hartzaileak ez badauka Espainiako Zerga Administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia, eremu honetan zeroak idatzi behar dira eta, gainera, nahitaez bete behar da ZERGA EGOITZA DAGOEN HERRIALDEKO IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA eremua (2 motako erregistroa, 433-452 zuriuneak).
27-35	Alfanumerikoa	LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ Eremu honetan hartzailearen ordezkartzan ari den pertsonaren edo erakundearen identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da uztailearen 8ko 71/2008 Foru Dekretuak, IFZren inguruko betebeharrak arautzen dituenak, ezartzen dituen arauekin bat etorritik (ALHAO, 88. zk., 2008ko abuztuaren 4koa). Gainerako kasuetan hutsik utzi behar da.

36-75	Alfanumerikoa	<p>HARTZAILEAREN IZEN-ABIZENAK EDO SOZIJETATE IZENA</p> <p>Pertsona fisikoa bada, honela idatzi behar dira: lehen abizena, hutsune bat, bigarren abizena, hutsune bat, eta azkenik izen osoa, hurrenkera honexetan nahitaez.</p> <p>Aldiz, pertsona juridikoa edo erakundea bada, sozietate izena edo izendapen osoa idatzi behar da, anagramarik gabe.</p>
76-115	Alfanumerikoa	<p>HARTZAILEAREN ORDEZKARIAREN IZEN-ABIZENAK EDO SOZIJETATE IZENA EDO IZENDAPENA</p> <p>Hartzailearen ordezkaria pertsona fisikoa bada, honela idatzi behar dira: lehen abizena, hutsune bat, bigarren abizena, hutsune bat eta azkenik izen osoa, hurrenkera honexetan nahitaez.</p> <p>Aldiz, pertsona juridikoa edo erakundea bada, sozietate izen edo izendapen osoa idatzi behar da, anagramarik gabe.</p> <p>Gainerako kasuetan hutsik utzi behar da.</p>
116	Numerikoa	<p>HARTZAILE MOTA</p> <p>Hartzailea nolako den zehazten duen gako numerikoa ipini behar da; hona zerrenda:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1 PFEZen kargapeko pertsona fisikoa. 2 Errentak esleitzeko araubidean dagoen erakundea, egoitza Espainiako lurraldean daukana. 3 Egoitza Espainiako lurraldean daukan pertsona juridikoa edo erakundean, sozietateen gaineko zergaren kargapean dagoena. 4 Egoitza Espainiako lurraldean ez daukan pertsona edo erakunde batek edo errentak esleitzeko araubidean dagoen atzerrian eraturako erakunde batek Espainiako lurraldean daukan establezimendu iraunkorra. 5 Egoitza Espainiako lurraldean ez daukan pertsona edo erakundea, bertan ari dena establezimendu iraunkorrik gabe.
117	Alfabetikoa	<p>NORTASUNAREN GAKOA</p> <p>Kasu honetan bakarrik sartu behar da: HARTZAILE MOTA eremuan (2 motako erregistroa, 116. zuriunea) 5 gakoa ipini bada (egoitza Espainiako lurraldean ez daukan pertsona edo erakundea, bertan ari dena establezimendu iraunkorrik gabe).</p> <p>Hartzailea pertsona fisikoa bada, "F" ipini behar da; pertsona juridikoa edo erakundea bada, "J".</p>

118-119	Numerikoa	<p>PROBINTZIAREN KODEA</p> <p>a) Oro har, hartzailearen egoitza dagoen probintziaren, lurralde historikoaren edo hiri autonomoaren kodea jarri behar da (bi digitu). Hona kodeen zerrenda:</p> <table border="0" style="margin-left: 40px;"> <tr><td>ARABA</td><td>01</td><td>LEON</td><td>24</td></tr> <tr><td>ALBACETE</td><td>02</td><td>LLEIDA</td><td>25</td></tr> <tr><td>ALACANT</td><td>03</td><td>LUGO</td><td>27</td></tr> <tr><td>ALMERIA</td><td>04</td><td>MADRIL</td><td>28</td></tr> <tr><td>ASTURIAS</td><td>33</td><td>MALAGA</td><td>29</td></tr> <tr><td>AVILA</td><td>05</td><td>MELILLA</td><td>52</td></tr> <tr><td>BADAJOZ</td><td>06</td><td>MURTZIA</td><td>30</td></tr> <tr><td>BARTZELONA</td><td>08</td><td>NAFARROA</td><td>31</td></tr> <tr><td>BURGOS</td><td>09</td><td>OURENSE</td><td>32</td></tr> <tr><td>CACERES</td><td>10</td><td>PALENCIA</td><td>34</td></tr> <tr><td>CADIZ</td><td>11</td><td>LAS PALMAS</td><td>35</td></tr> <tr><td>KANTABRIA</td><td>39</td><td>PONTEVEDRA</td><td>36</td></tr> <tr><td>CASTELLO</td><td>12</td><td>ERRIOXA</td><td>26</td></tr> <tr><td>CEUTA</td><td>51</td><td>SALAMANCA</td><td>37</td></tr> <tr><td>CIUDAD REAL</td><td>13</td><td>S.C. TENERIFEKOA</td><td>38</td></tr> <tr><td>KORDOBA</td><td>14</td><td>SEGOVIA</td><td>40</td></tr> <tr><td>A CORUÑA</td><td>15</td><td>SEVILLA</td><td>41</td></tr> <tr><td>CUENCA</td><td>16</td><td>SORIA</td><td>42</td></tr> <tr><td>GIRONA</td><td>17</td><td>TARRAGONA</td><td>43</td></tr> <tr><td>GRANADA</td><td>18</td><td>TERUEL</td><td>44</td></tr> <tr><td>GUADALAJARA</td><td>19</td><td>TOLEDO</td><td>45</td></tr> <tr><td>GIPUZKOA</td><td>20</td><td>VALENTZIA</td><td>46</td></tr> <tr><td>HUELVA</td><td>21</td><td>VALLADOLID</td><td>47</td></tr> <tr><td>HUESCA</td><td>22</td><td>BIZKAILA</td><td>48</td></tr> <tr><td>BALEAR UHARTEAK</td><td>07</td><td>ZAMORA</td><td>49</td></tr> <tr><td>JAEN</td><td>23</td><td>ZARAGOZA</td><td>50</td></tr> </table> <p>b) Hartzailea PFEZen kargapean badago eta beraren ohiko egoitza atzerrian badago (PFEZi buruzko Foru Arauko 10.2 eta 4.1 artikulua): Espainiako nazionalitatea daukaten pertsona fisikoak, zerga egoitza berria paradisu fiskaltzat jotako herrialde edo lurralde batean ezarri dutela frogatzen dutenak; Espainiako misio diplomatikoetako kideak; Espainiako kontsul bulegoetako kideak; etab.), 98 idatzi behar da.</p> <p>c) HARTZAILE MOTA eremuan (2 motako erregistroa, 116. zuriunea) 5 gakoa ipini bada (egoitza Espainiako lurraldean ez daukan pertsona edo erakundea, bertan ari dena establezimendu iraunkorrik gabe), 99 idatzi behar da.</p>	ARABA	01	LEON	24	ALBACETE	02	LLEIDA	25	ALACANT	03	LUGO	27	ALMERIA	04	MADRIL	28	ASTURIAS	33	MALAGA	29	AVILA	05	MELILLA	52	BADAJOZ	06	MURTZIA	30	BARTZELONA	08	NAFARROA	31	BURGOS	09	OURENSE	32	CACERES	10	PALENCIA	34	CADIZ	11	LAS PALMAS	35	KANTABRIA	39	PONTEVEDRA	36	CASTELLO	12	ERRIOXA	26	CEUTA	51	SALAMANCA	37	CIUDAD REAL	13	S.C. TENERIFEKOA	38	KORDOBA	14	SEGOVIA	40	A CORUÑA	15	SEVILLA	41	CUENCA	16	SORIA	42	GIRONA	17	TARRAGONA	43	GRANADA	18	TERUEL	44	GUADALAJARA	19	TOLEDO	45	GIPUZKOA	20	VALENTZIA	46	HUELVA	21	VALLADOLID	47	HUESCA	22	BIZKAILA	48	BALEAR UHARTEAK	07	ZAMORA	49	JAEN	23	ZARAGOZA	50
ARABA	01	LEON	24																																																																																																							
ALBACETE	02	LLEIDA	25																																																																																																							
ALACANT	03	LUGO	27																																																																																																							
ALMERIA	04	MADRIL	28																																																																																																							
ASTURIAS	33	MALAGA	29																																																																																																							
AVILA	05	MELILLA	52																																																																																																							
BADAJOZ	06	MURTZIA	30																																																																																																							
BARTZELONA	08	NAFARROA	31																																																																																																							
BURGOS	09	OURENSE	32																																																																																																							
CACERES	10	PALENCIA	34																																																																																																							
CADIZ	11	LAS PALMAS	35																																																																																																							
KANTABRIA	39	PONTEVEDRA	36																																																																																																							
CASTELLO	12	ERRIOXA	26																																																																																																							
CEUTA	51	SALAMANCA	37																																																																																																							
CIUDAD REAL	13	S.C. TENERIFEKOA	38																																																																																																							
KORDOBA	14	SEGOVIA	40																																																																																																							
A CORUÑA	15	SEVILLA	41																																																																																																							
CUENCA	16	SORIA	42																																																																																																							
GIRONA	17	TARRAGONA	43																																																																																																							
GRANADA	18	TERUEL	44																																																																																																							
GUADALAJARA	19	TOLEDO	45																																																																																																							
GIPUZKOA	20	VALENTZIA	46																																																																																																							
HUELVA	21	VALLADOLID	47																																																																																																							
HUESCA	22	BIZKAILA	48																																																																																																							
BALEAR UHARTEAK	07	ZAMORA	49																																																																																																							
JAEN	23	ZARAGOZA	50																																																																																																							
120-127	Numerikoa	<p>ZOKKETAREN EDO APUSTUAREN DATA</p> <p>Saria ekarri duen zozketaren edo apustuaren oinarritzko ekitaldia noiz gertatu den zehaztu behar da UUUUHHEE formatuarekin.</p>																																																																																																								
128-135	Numerikoa	<p>SARIAREN ORDAINKETAREN DATA</p> <p>Saria hartzaileari noiz ordaindu zaion zehaztu behar da UUUUHHEE formatuarekin.</p>																																																																																																								
136-150	Numerikoa	<p>SARIAREN ZENBATEKOA / GAUZAZKO SARIAREN BALIOA, GUZTIRA</p> <p>Diru sariaren guztirako zenbatekotik edo gauzazko sariaren guztirako baliotik hartzaileari zenbat dagokion zehaztu behar da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe.</p> <p>Zozketa batean hartzaileak hainbat sari lortu baditu, eremu honetan diru sari guztien edo gauzazko sari guztien balioen batura zehaztu behar da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe.</p> <p>Zenbatekoak euroetan eman behar dira.</p>																																																																																																								

			<p>Eremu honetan atal bi daude:</p> <p>136-148 Ekitaldian hartzaileak jasotako diru sarien eta gauzazko sarien balioen guztirako zenbatekoaren zati osoa.</p> <p>149-150 Ekitaldian hartzaileak jasotako diru sarien eta gauzazko sarien balioen guztirako zenbatekoaren zati hamartarra. Ez badago, zeroak jarri behar dira.</p>
151-165	Numerikoa	ATXIKIPENEN EDO KONTURAKO SARREREN OINARRIA	<p>Atxikipenen edo konturako sarreraren oinarriaren zenbatekoa zehaztu behar da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe. Zenbateko hau kalkulatzeko ondoko xedapen hauetan ezarritakoa aplikatu behar da: azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua, PFEZ arautzen duena, hemezortzigarren xedapen gehigarriko 3. eta 6. paragrafoak; ekainaren 18ko 21/2014 Foru Araua, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarena, zazpigarren xedapen gehigarriko bigarren paragrafoa; abuztuaren 1ekoa 41/2014 Foru Dekretua, Sozietateen gaineko zergaren Araudia onetsi duena, 56. artikulua, e) idatz zatia.</p> <p>Zozketa batean hartzaileak hainbat sari lortu baditu, eremu honetan zozketako sari guztiei dagozkien atxikipenen edo konturako sarreraren oinarri batura zehaztu behar da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe.</p> <p>Zenbatekoak euroetan eman behar dira.</p> <p>Eremu honetan atal bi daude:</p> <p>151-163 Atxikipenen eta konturako sarreraren oinarriaren zati osoa.</p> <p>164-165 Atxikipenen eta konturako sarreraren oinarriaren zati hamartarra. Ez badago, zeroak jarri behar dira.</p>
166-180	Numerikoa	ATXIKIPENAREN EDO KONTURAKO SARRERAREN ZENBATEKOA	<p>Saria ordaindu duen erakundeak aplikatutako atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa zehaztu behar da, zeinurik eta koma hamartarrik ipini gabe.</p> <p>Zozketa batean hartzaileak hainbat sari lortu baditu, eremu honetan zozketako sari guztiei dagozkien atxikipenen edo konturako sarreraren batura zehaztu behar da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe.</p> <p>Zenbatekoak euroetan eman behar dira.</p> <p>Eremu honetan atal bi daude:</p> <p>166-178 Atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa.</p> <p>179-180 Atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra. Ez badago, zeroak jarri behar dira.</p>

181	Alfabetikoa	<p>KOBRANTZEN KUDEAKETA</p> <p>Eremu hau kasu honetan bakarrik markatu behar da “X” batez: saria kobratu aurretik partaidetza moduan banatzen denean, hau da, saria kobratzen duen pertsona, fisikoa edo juridikoa, haren azken onuraduna ez denean.</p>
182-432	—	<p>HUTSIK</p>
433-452	Alfanumerikoa	<p>ZERGA EGOITZA DAGOEN HERRIALDEKO IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA</p> <p>Kasu honetan bakarrik zehaztu behar da: HARTZAILE MOTA eremuan (2 motako erregistroa, 116. zuriunea) 5 gakoa ipini bada (egoitza Espainiako lurraldean ez daukan pertsona edo erakundea, bertan ari dena establezimendu iraunkorrik gabe) eta hartzaileak ez badauka Espainiako Zerga Administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia.</p> <p>Hala bada, hauxe sartu behar da eremu honetan:</p> <p>a) Hartzailea pertsona fisikoa bada, pasaportearen zenbakia edo jatorrizko herrialdean baliozkoa den nortasun agiriaren zenbakia.</p> <p>b) Hartzailea erakundea bada, jatorrizko herrialdeko zerga agintaritzak ezarritako identifikazio zenbakia edo kodea.</p> <p>Gainerako kasuetan hutsik utzi behar da.</p>
453-460	Numerikoa	<p>JAIOTEGUNA</p> <p>Kasu honetan bakarrik zehaztu behar da: HARTZAILE MOTA eremuan (2 motako erregistroa, 116. zuriunea) 5 gakoa ipini bada (egoitza Espainiako lurraldean ez daukan pertsona edo erakundea, bertan ari dena establezimendu iraunkorrik gabe) eta NORTASUNAREN GAKOA eremuan (2 motako erregistroa, 117. zuriunea) F ipini bada.</p> <p>Hala bada, hartzailea noiz jaio zen zehaztu behar da.</p> <p>Honela egin behar da: urtearen lau digituak, hilaren biak (01 - 12) eta egunaren biak (01 - 31), UUUUHHEE formatuarekin.</p>
461-497	Alfanumerikoa	<p>JAIOTERRIA</p> <p>Kasu honetan bakarrik zehaztu behar da: HARTZAILE MOTA eremuan (2 motako erregistroa, 116. zuriunea) 5 gakoa ipini bada (egoitza Espainiako lurraldean ez daukan pertsona edo erakundea, bertan ari dena establezimendu iraunkorrik gabe) eta NORTASUNAREN GAKOA eremuan (2 motako erregistroa, 117. zuriunea) F ipini bada.</p> <p>Hala bada, hartzailea non jaio zen zehaztu behar da.</p> <p>Eremu honetan atal bi daude:</p> <p>461-495 HIRIA: 35 zuriune. Hartzailea jaio zen udalerrria adierazi behar da eta, behar denean, probintzia, erregioa edo departamentua ere bai.</p>

496-497 **HERRIALDEAREN KODEA:** eremu alfabetikoa, zuriune bikoia. Hartzailea jaio zen herrialdearen edo lurraldearen kodea adierazi behar da (indarrean dagoen herrialde eta lurraldeen gakoen zerrendatik hartu behar da).

498-499 Alfabetikoa **HARTZAILEAK ZERGA EGOITZA DAUKAN
HERRIALDEA EDO LURRALDEA**

Kasu honetan bakarrik zehaztu behar da: HARTZAILE MOTA eremuan (2 motako erregistroa, 116. zuriunea) 5 gakoa ipini bada (egoitza Espainiako lurraldean ez daukan pertsona edo erakundea, bertan ari dena establezimendu iraunkorrik gabe). Hala bada, eremu honetan hartzailearen egoitza dagoen lurraldea edo herrialdea adierazten duten bi karaktere alfabetikoak idatzi behar dira (herrialdeen eta lurraldeen kode alfabetikoen indarreko zerrendan begiratu behar da).

Gainerako kasuetan hutsik utzi behar da.

500 — **HUTSIK**

- Zenbateko guztiak positiboak izan behar dira.
- Edukirik gabeko eremu numerikoak zeroz bete behar dira.
- Edukirik gabeko eremu alfanumerikoak eta alfabetikoak hutsik utzi behar dira.
- Eremu numerikoak eskuinean lerrokatu behar dira eta ezkerraldean zeroz bete behar dira.
- Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerrean lerrokatu behar dira eta eskuinaldean hutsik utzi, eta letra larriz idatzi behar da, karaktere berezirik gabe eta azentudun bokalik gabe, eremuaren deskripzioan kontrakorik azaldu ezean.

270 EREDUA
1. ERREGISTRO MOTA: AITORTZAILEAREN ERREGISTROA

AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA		AITORTZAILEAREN IZENA EDO SOZIALTEAREN IZENA		PERTSONA	
EREGIA	EKITALDIA	AITORTZAILEAREN IJEZ		TELEFONOA	
1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30
31	32	33	34	35	36
37	38	39	40	41	42
43	44	45	46	47	48
49	50	51	52	53	54
55	56	57	58	59	60
61	62	63	64	65	

HARREMANETARAKO PERTSONA		AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA		AURREKO AITORTZENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA	
ABIZENAK ETA IZENA		AITORTZEN OSAGARRIA		GUREKO AITORTZENA	
66	67	68	69	70	71
72	73	74	75	76	77
78	79	80	81	82	83
84	85	86	87	88	89
90	91	92	93	94	95
96	97	98	99	100	101
102	103	104	105	106	107
108	109	110	111	112	113
114	115	116	117	118	119
120	121	122	123	124	125
126	127	128	129	130	

AITORTUTAKO ERREGISTROAK, GUZTIRA		SARI GUZTIA ZENBATEKOA EDO BALORAZIOA		ATXIKIPENEN EDO KONTURAKO SARREREN OINARRIA, GUZTIRA		ATXIKIPENEN EDO KONTURAKO SARREREN ZENBATEKOA, GUZTIRA	
OSOA		OSOA		OSOA		OSOA	
131	132	133	134	135	136	137	138
139	140	141	142	143	144	145	146
147	148	149	150	151	152	153	154
155	156	157	158	159	160	161	162
163	164	165	166	167	168	169	170
171	172	173	174	175	176	177	178
179	180	181	182	183	184	185	186
187	188	189	190	191	192	193	194
195							

ERREGISTRO MOTA		AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA		AITORTZAILEAREN IZENA EDO SOZIALTEAREN IZENA		PERTSONA	
EREGIA		EKITALDIA		AITORTZAILEAREN IJEZ		TELEFONOA	
1	2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31	32
33	34	35	36	37	38	39	40
41	42	43	44	45	46	47	48
49	50	51	52	53	54	55	56
57	58	59	60	61	62	63	64
65							

